

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, NERBIOI IBAIAREN EZKERRALDEKO UDALERRIEN MANKOMUNITATEAREN 2010-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Nerbioi Ibaiaren Ezkerraldeko Udalerrien Mankomunitatearen 2010eko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak legezkotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, diru-sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta diru-laguntzaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkotasunaren atalean, Epaitegiak iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Honela, bada, langileriaren atalean HKEEk funtzionario postu berri bat berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatu gabe zuzkitu dela azpimarratu du.

Mankomunitatearen Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketei dagokienez, Udalaren Diruzaintza Geldikina 47 mila euroan gehitu dutenak.

Berebat, HKEEk hainbat irizpen jaso ditu barne kontrolaren sistemari eta kudeaketa prozedurei buruz aurrekontu, kontabilitate eta langileen alorretan eta Mankomunitatearen jarduera egun duen moldearekin aztertzeo gomendioa luzatu du, jarduera maila txikiari erreparatuta.

Amaitzeko, Mankomunitatearen egoera finantzarioari dagokionez jakinarazi da 2008-2010 aldian mankomunitatean bildutako udalen ekarpenek soberakinak sortu dituztela eta ondorioz, diruzaintza geldikina 2,2 milioi eurora goititu dutela, eskuratu diren diru-sarrerak funtzionamendu gastuak baino handiagoak izan direlako.

